

Donostian, 2018ko apirilaren 20an

IDAZKARI NAGUSIARI

IRAKURKETA ERRAZARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkezten du. Mozioa hilabete honetako Zerbitzu Orokorren Batzordean IRAKURKETA ERRAZARI buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko irailean, gure taldearen ekimenez aurkeztutako mozio bat onartu zuen Udalbatzak, irakurketa errazari buruzkoa eta irakurketa errazaren irizpideen barruan sartzen diren materialak sortzea sustatzeari buruzkoa. Administrazioak berak egiten dituen dokumentuak hiritar guztientzat irisgarriago izatea da helburua.

Hiritarrek mota horretako dokumentuetara iristeko aukera gehiago izateaz gain, garrantzitsua iruditzen zaigu hiritar guztiek mota guztietako material eta liburuetara iristeko aukera izatea ere, hau da, kulturara iristeko aukera orokortzearen alde egitea. Izan ere, Euskadin, pertsonen %30ek dituzte irakurketa zailtasunak.

Udal Gobernuak gai horri lotuta zer aurrera pauso eman dituen galdetuta, batzordean iragarri ziguten amaitzen ari direla udal gardentasun ereduko dokumentua, eta ekintza plan bat ere prestatzen ari direla.

Ontzat ematen dugu Udal Gobernuak hiritarrekin komunikatzeko irakurketa errazeko irizpideak sartzeko pausoak ematen ari dela jakitea. Alabaina, iruditzen zaigu beharrezkoa dela plan horren xehetasunak udal taldeekin partekatzea; era berean, egokia litzateke taldeei planari buruzko ekarpenak egiteko aukera ematea, haiek hala nahi izanez gero.

Horrez gain, iruditzen zaigu irakurketa errazari buruzko ezagutza eta haren garapena hedatu egin behar direla. Horretarako, hirian irakurketa errazeko taldeak sortzea izan daiteke tresna egoki bat.

Kulturarako irisgarritasuna orokortzeko bideak aztertzeak, kasu honetan irakurketaren bidez, aukera emango luke hiritarrei oinarritzko eskubide hori areagotzeko.

Hori guztia dela eta, eta apirilaren 23a Liburuaren Munduko Eguna dela baliatuta, iruditzen zaigu premiazkoa dela irakurketa errazeko irizpideak sartzea dokumentu publikoak osatzerakoan; baina, horrez gain, beharrezkoa iruditzen zaigu irakurketarako irisgarritasuna orokortzea irakurketa errazeko taldeak sortuz. Horrenbestez, hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio, udalaren irakurketa errazari buruzko ekintza plana martxan jarri aurretik, udal taldeekin parteka dezala plan hori.
2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio, Donostia Kulturaren baitan, udal liburutegietan irakurketa errazeko taldeak sortzea bultzatzea dezala.

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.